

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
ANDER PRADOS OTAMENDI  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN  
NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko martxoaren 5ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2024-01-31KO ETA 2024-02-27KO UDAL BILKURETAKO AKTEN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu diren 2024-01-31ko eta 2024-02-27ko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Ignacio Pampliega**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 29an, 5/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ignacio Pampliega Rivasek hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren 3/2023 likidazioaren kontra ezarritako berraztertzeke helegitea onartzea eta beraz, likidazio hori balio gabetzea.

### **2. Santa ageda**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 30ean, 6/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Santa Ageda bezperako meriendatxoa Udalak bere gain hartzea.

### **3. Inauteriak**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 30ean, 07/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Inauteriak direla eta, otsailaren 23eko arratsaldean eta 24an, goizean, plaza erabiltzeko baimena eta ostiral arratsaldetik igandera arte frontoia erabiltzeko baimena ematea Beteluko inauteri batzordeari.

### **4. Enrique Martinez Cabanelas**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 31n, 8/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 6. Lursailean dagoen Bengoetxea etxearen estalkia berritzeko eta teilatu-hodia berritzeko obrak direla eta, Enrique Martinez Cabanelasi altuerako obren segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana edo obraren segurtasun-plana eta aldamiaoa jartzeko gaitutako teknikariak dagokion segurtasun ziurtagiria eman beharko du.

### **5. Inauteriak**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko otsailaren 21ean, 9/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko inauterien batzordeak antolatutako Beteluko inauterien baitan, Beteluko bide publikoetan eginen diren ekintzetarako baimena ematea.

### **6. Ordainketa agindua**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko otsailaren 22an, 10/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

### **7. Mikel Otamendi**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko otsailaren 22an, 11/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. poligonoko 5. partzelan dagoen Juangonea etxean paretak eta beheko solairuko zorua (garajea barne) hobetu eta komun berria egiteko.

### **8. Mikel Otamendi**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko otsailaren 22an, 12/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mikel Otamendi Ezkurdiak Beteluko 2. poligonoko 5. partzelan dagoen Juangonea etxean atedun bi hutsarte irekitzeko obra

baimen eskaerari dagokionez, egin beharreko obrak azalduko diren planoak eta argazkiak eskatzea.

### **3. BETELUKO 1-234 LURZATI SOBERAKINA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZEKO PROZEDURA HASTEAN**

Lorenzo Zubillaga Goicoecheak eskaera aurkeztu zuen 2020ko abenduaren 14an Beteluko 1. Poligonoko 234. Lursaila (oraindik sortu gabea) eskuratzeko. Lorenzo Zubillaga Goicoechea lursail horren inguruko lursailen jabea da.

Beteluko Udalak desafekzio espedientea burutu zuen eta ondorioz, ondare ondasun moduan kalifikatu zuen.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 1.500,72 €urokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

Kasuan-kasuko baldintzen plegua edo agiria onartu eta espedienteari erantsi behar zaio.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 5 botorekin, eta Lorenzo Zubillaga Goicoechearen abstentziorekin, beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Administrazio-espedientea bideratzea 1-234 katastrozenbakia duen eta gure administrazioak den ondasun higiezinaren besterentzeko, ondare-ondasuna bera, hurrengoak kontuan hartuta:

1. Besterentzearen justifikazioa, egokitasuna eta komenigarritasuna: Hona hemen zergatik egin nahi den:

Bide funtzioa desagertu denez, lursailak ez du erabilpen egokirik. Lursaila irregularrak da, luzea eta meharra baita.

2. Besterentze-modua: Zuzenean besterentzeko prozedura hastea, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 134.2.c) artikuluan ezarritakoa kontuan harturik.

3.- Prezioa: Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 125.3. artikuluan arautu dena betetzeko –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, ondasuna, goian azaldutakoari jarraikiz, horrela zenbatetsi da: 1.500,72 euro.

BIGARRENA. Hurrengo lursaila besterengarria dela aitortzea: Katastroko zenbakia 1-234 du, Beteluko Udalarena da eta ondare-izaera du.

HIRUGARRENA. Besterentzea arautuko duen baldintzen agiria onestea.

LAUGARRENA. Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeitun egun baliouduneko epean, dagozkion iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu ondoren.

#### **4. 1. POLIGONOKO 9. PARTZELAREN INGURUAN SOBERAN DAGOEN 795,88 M2-KO LURZATIA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZEKO PROZEDURA HASTEA**

Jose Ignacio Yeregui Arlanzónek eskaera aurkeztu zuen 2023ko uztailaren 3an Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailaren inguruan dagoen 795,88 m<sup>2</sup>ko lurzattia eskuratzeko. Bera 1. Poligonoko 9. Lursaileko jabea da.

Beteluko Udalak desafekzio espedientea burutu zuen eta ondorioz, ondare ondasun moduan kalifikatu zuen.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 7.958,80 Eurokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

Kasuan-kasuko baldintzen plegua edo agiria onartu eta espedienteari erantsi behar zaio.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 6 botorekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Administrazio-espeditentea bideratzea 1-9. Lursail inguruko 795,88 metro karratu (txosten teknikoan zehaztutakoak) eta gure administrazioa den ondasun higiezin besterentzeko, ondare-ondasuna bera, hurrengoak kontuan hartuta:

1. Besterentzearen justifikazioa, egokitasuna eta komenigarritasuna: Hona hemen zergatik egin nahi den:

Lurzati horrek 1. Poligonoko 9. Lursailean dagoen Muñoa etxerako sarbide moduan baino ez du erabilerarik. Ez du balio beste lursail batzuekin konektatzeko. Gainera, duen aldagatik ezinen luke bestelako erabilerarik izan.

2. Besterentze-modua: Zuzenean besterentzeko prozedura hastea, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 134.2.c) artikuluan ezarritakoa kontuan harturik.

3.- Prezioa: Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 125.3. artikuluan arautu dena betetzeko –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, ondasuna, goian azaldutakoari jarraikiz, horrela zenbatetsi da: 7.958,80 euro.

BIGARRENA. Hurrengo lursaila besterengarria dela aitortzea: Beteluko 1. poligonoko 9. lursail inguruko 795,88 metro karratu, Beteluko Udalarena da eta ondare-izaera du.

HIRUGARRENA. Besterentzea arautuko duen baldintzen agiria onestea.

LAUGARRENA. Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeitun egun balioduneko epean, dagozkion iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu ondoren.

## **5. ETXABURUKO ETXEEN ARTEAN 443,17 M2-KO LURZATI SOBERAKINA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZECO PROZEDURA HASTEA**

Beteluko Udalak txosten teknikoan S-a, S-b eta S-c izendatutako lursail soberakinak jabe mugakideei saltzeko asmoa du.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espeditentean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 10.192,91 €urokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

Kasuan-kasuko baldintzen plegua edo agiria onartu eta espedienteari erantsi behar zaio.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 6 botorekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

## ERABAKI DU

LEHENENGOA. Administrazio-espedientea bideratzea txosten teknikoan izendatutako S-a, S-b eta S-c lursaileko ondasun higiezina besterentzeko, ondare-ondasuna bera, hurrengoak kontuan hartuta:

1. Besterentzearen justifikazioa, egokitasuna eta komenigarritasuna: Hona hemen zergatik egin nahi den:

Teknikoki ziurtatu zenez, terrenoen baldintza topografikoak direla eta, ezin da bertan lurzorua mugatzeko proiektuana aurreikusitako kalerik egin.

2. Besterentze-modua: Zuzenean besterentzeko prozedura hastea, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 134.2.c) artikuluan ezarritakoa kontuan harturik.

3.- Prezioa: Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 125.3. artikuluan arautu dena betetzeko –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, ondasuna, goian azaldutakoari jarraikiz, horrela zenbatetsi da: 10.192,91 euro.

BIGARRENA. Hurrengo lursaila besterengarria dela aitortzea: txosten teknikoan izendatutako S-a, S-b eta S-c lursailak, Beteluko Udalarenak dira eta ondare-izaera dute.

HIRUGARRENA. Besterentzea arautuko duen baldintzen agiria onestea.

LAUGARRENA. Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeitun egun balioduneko epean, dagozkion iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu ondoren.

## **6.- ETXABURUKO ETXEEN ARTEAN 35,00 M2-KO LURZATI SOBERAKINA ONDOKO JABEARI BESTERENTZeko PROZEDURA HASTEA**

Beteluko Udalak txosten teknikoan S2 lursail moduan izendatutako lursail soberakinak jabe mugakideei saltzeko asmoa du.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –foru-dekretu horren bidez

Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 805,00 Eurokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

Kasuan-kasuko baldintzen plegua edo agiria onartu eta espedienteari erantsi behar zaio.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 6 botorekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Administrazio-espeditentea bideratzea txosten teknikoan izendatutako S2 lursaileko ondasun higiezina besterentzeko, ondare-ondasuna bera, hurrengoak kontuan hartuta:

1. Besterentzearen justifikazioa, egokitasuna eta komenigarritasuna: Hona hemen zergatik egin nahi den:

Teknikoki ziurtatu zenez, terreneen baldintza topografikoak direla eta, ezin da bertan lurzorua mugatzeko proiektuana aurreikusitako kalerik egin.

2. Besterentze-modua: Zuzenean besterentzeko prozedura hastea, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 134.2.c) artikuluan ezarritakoa kontuan harturik.

3.- Prezioa: Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 125.3. artikuluan arautu dena betetzeko –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, ondasuna, goian azaldutakoari jarraikiz, horrela zenbatetsi da: 805,00 euro.

BIGARRENA. Hurrengo lursaila besterengarria dela aitortzea: txosten teknikoan izendatutako S-2 lursaila, Beteluko Udalarenak da eta ondare-izaera du.

HIRUGARRENA. Besterentzea arautuko duen baldintzen agiria onestea.

LAUGARRENA. Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeitun egun balioduneko epean, dagozkion iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu ondoren.

## **7.- URUMEA ETXEAREN (2. POLIGONOKO 80. LURSAILA) ENKANTE BIDEZKO SALMENTA**

Beteluko 2. Poligonoko 80. Lursaileko ondasun higiezina enkante bidez prozedura irekiaren bidez besterentzeko izapidetzen ari den espedientea ikusi da.

Espedientean dauden txostenak eta baldintza-agiria ikusita, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 132. Artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa kontuan harturik, udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Udalaren jabetzakoa den 2. Poligonoko 80. lursaileko ondasun higiezina besterentzeko espedientea onartzea, prozedura irekiaren bidez eta enkante publikoko deialdiaren bidez.

BIGARRENA.- Ondasun higiezina enkante bidez besterentzeko administrazio-klausulen agiria onartzea, bai eta ondasun hori zehatz-mehatz deskribatzen duen txosten teknikoa ere.

HIRUGARRENA.- Goranzko lizitazio-tasa gisa onestea 20.000 euroko prezioa.

LAUGARRENA.- Lizitazioa Beteluko Udaleko iragarki oholean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzea, egoki irizitako proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez daitezen.

BOSGARRENA: Kontratazio-mahai hau izendatzea, salmenta kontratua esleitzeko proposamena egiteko:

Presidentea: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna

Mahaikideak:

- Iñaki Elizalde Zubillaga, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Nerea Yeregui Balda, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- María Cristina Val Sardon, Beteluko Udaleko zinegotzia.

Mahaikide-idazkaria: Joanes Aleman Olló

## **8. ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOKO FRONTOIA SUTEETARAKO EBAKUAZIO ARAUDIRA EGOKITZEARI BURUZKO MEMORIA BALORATUA ONARTZEA**

Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako abenduaren 28ko 197E/2023 ebazpen bidez Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi da, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egin ditzaten. Deialdi horren oinarrien 6.b.3) oinarriari so eginez, udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez

ERABAKI DU:



LEHENENGOA: Jose Miguel Rodriguez Ezpeletak idatzitako Araxes eskualdeko ikastetxe publikoko frontoia suteetarako ebakuzio araudira egokitzeari buruzko memoria baloratua onartzea eta beraz bere baitan aurreikusten diren obrak onartzea.

BIGARRENA: Proiektuan agertu bezala, inbertsioaren zenbateko osoa (obrak eta honorario teknikoak kontuan harturik) 75.030,99 eurokoa da (BEZ barne).

HIRUGARRENA: Obren gauzatzea aipatutako dirulaguntzen onuradun izatera baldintzaturik egonen da.

LAUGARRENA: Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako abenduaren 28ko 197E/2023 ebazpen bidez Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzea.

BOSGARRENA: "Araxes eskualdeko ikastetxe publikoko frontoia suteetarako ebakuzio araudira egokitzea" izeneko obrari dagokionez, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura ekonomikoa izanen denaren konpromisoa hartzea, beti ere aipatutako dirulaguntzaren adjudikaziodun izanez gero.

## **9. JASOTAKO IDATZIAK**

### **1. Ehige**

Ehige gurasoen elkarteak 2024ko ekainaren 2an Ordizian eginen den Euskal Eskola Publikoaren aldeko festarako laguntza ekonomikoa eskatu du. Udalbatzak aho batez zera onartu du:

Udal honek dituen aurrekontu mugapenengatik eta jada Nafarroa Oinez eta Korrika laguntzen ditueneguz, Ehigek egindako diru eskaera ez onartzea.

## **10. FAKTUREN ONESPENA**

Kirol Mankomunitatea	2024ko Araitz-Beteluko krossa	177,50
Goener	Udaletxeko energia elektrikoa	1.355,16
Angelines Carrillo Ruiz	F. A/2024	90,00
Wikai	Otsaileko banda zabala	112,10
Vizcaina de petróleos S.L.	F. G4 908	3.372,27
Jose Alberto Crespo Miguel	Mangerak, kodoak eta lanzak...	453,78
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 21	471,90
OFICO	Otsaileko lan aholkularitza	126,92
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 5/2024	236,13
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 6/2024	151,25
Rekalde Zurgindegia	F. 705-24	306,59
Tüv Süd	Inspección ascensores	108,90
M. Garcia Satrustegi	F. A1/102 pilota eskolako finaleko merienda	83,86
Navadat	Datuen babesean aholkularitza	988,59

Ignacio Eraso Ochotorena	F. 13	699,86
Iberdrola	Urtarrileko argiteri publikoa	86,49
Mendialdea mankomunitatea	Mendialdea eskualdean erabilera termikorako biomasaren eskaera potentzialaren azterketa-kontraturako memoria	211,14
AEK korrika	F. B23001342 babesletza kontratua	514,25
Codisna	F. 24053	171,63
Serlimpia SL	F. 240012	71,39
Rosa janaridenda	Garbiketako produktuak	80,05
Rosa janaridenda	Santa Agedako merienda	39,10
Eroski	Santa Agedako merienda	9,31
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 5/2024	90,00
Wikai	Urtarrileko banda zabala	112,10
Mari Tere janaridenda	Seiluak	156,80
Venus Margarita Campos Walsh	Urtarrileko zaborrontziak	154,28
Brico Depot	Hainbat gauza 14,70+65,99	80,69
Berria	F. H-403826	482,00
Hostal Betelu	Suteen aurkako ikastaroko bazkariak	121,80
Taxilon	F. 926	120,90
Lyreco	F. 7050370029	548,92
Goiener	Eskolako urtarrileko energia elektrikoa	1.469,56
Goiener	Udaletxeko urtarrileko energia elektrikoa	1.726,67
Iberdrola	Urtarrileko energia elektrikoa	382,46
Iberdrola	Urberoa urtarrileko energia elektrikoa	6,31
Iberdrola	Kale Nagusia 7-2 ezkerreko urtarrileko energia elektrikoa	8,34
Venus Campos Walsh	Urtarrileko garbiketa	2.734,59
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
KIDE AHOLKULARITZA	Otsaileko LAN AHOLKULARITZA	190,58
Rosa janaridenda	Otsaileko janaria	60,33
Rosa janaridenda	Otsaileko garbiketa materiala	14,45
Angelines Carrillo Ruiz	F. A7/2024	47,30
M. Garcia Satrustegui	F. A1/98	661,70
Rosa janaridenda	Urtarrileko garbiketa materiala	39,10
Rosa janaridenda	Urtarrilekoa janaria	54,76
Kide Aholkularitza	Urtarrileko lan aholkularitza	349,69

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

## **11. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatzia laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.